

# aikor.

TOKIKOM

2026ko uztaila · #270



JOSEBA UGALDE OLABARRI

## Baserri mundutik Munduko Txapelketara



# aikor.

**Argitaratzailea:**

**TOTOAN Txorierriko Euskara Elkartearen Federazioa** (Lagatzu, Zorritzketan, Altzora, Darabilgu eta Tximintx komunitatea)

**Zuzendaria:**

Xabier Goienetxe

**Erredakzio burua:**

Mikel Reina Barros

**Argazkiak eta maketazioa:**

Aner Mentxaka Alvarez

**Administrazioa eta publizitatea:**

Ruth Bilbao

**Kolaboratzaileak:**

Maitane Apodaka  
Alaia Saenz Orbe  
Josu Uribe  
Ignacio Quintana San Miguel  
Jone Goitioso Uriarte  
Txerra Rodriguez  
Iñaki Olabarrieta  
Jose Angel Mentxaka  
Estitxu Pérez Castro

**Albisteak:**

txorierrri@aikor.eus | 688 864 135

**Kudeaketa:**

aikor@aikor.eus | 747 406 561

**Administrazioa eta publizitatea:**

admin@aikor.eus | 688 782 642

**Inprimategia:** Gertu**Banaketa:** Pac publicidad**Ale kopurua:** 8.000**Lege gordailua:** BI 137-02 ISSN 1578-9322

**aikor aldizkariak** ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota iritzien erantzukizunik.

**CC BY-SA 3.0**

Aitortu - Partekatu Berdin 3.0 Moldatu gabea



## SUMARIOA

- 4 Iritzia
- 5 Albiste laburrak
- 10 **Uribe On Tour 2026**  
**DIRUZ BABESTUTAKO EDUKIA**
- 12 Zozketak
- 13 **Molano Ilepaindegia**  
**DIRUZ BABESTUTAKO EDUKIA**
- 14 **Angel Serrano Martinez**
- 16 **Goitioltzako jaiak**
- 18 **Txoriberri**
- 20 **Joseba Ugalde Olabarri**
- 24 **Zamudioko I. Rallysprinta**
- 28 **Flysch Bizkaia**  
**DIRUZ BABESTUTAKO EDUKIA**
- 30 Mihigintza  
**Tokira egokitua eta politika substantibo: Loitutik Larrabetzura**
- 31 **BATUZ**
- 32 Menditik patxadaz  
**San Kiriko**
- 34 Herbarioa  
**Urkia**
- 36 Sukaldaritzza  
**Boletus eta zigalen risottoa**
- 37 Denbora-pasak
- 38 Uztaileko agenda



**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral

BIZKAIKO FORU ALDUNDIAK BABESTUTAKO HEDABIDEA



## IRITZIA

# Xehetasunen iraultza

**M**aite dit goizeko kafeari kanela pixka bat botatzea. Ez da beharrezkoa, baina horregatik da hain berezia. Ez duelako zaporea bakarrik aldatzen; une arrunt bati xarma ematen diolako.

Maite ditut jaietan distirutzen diren aurpegiak ere. Badago zerbait magikoa distira egitea erabakitzen duten pertsonengan, purpurinarekin edo gabe haien argia ezkututzen ez dutenengan.

Maite ditut haien balkoiak lorez betetzen dituztenak, etxeen ertzetan loratzen diren kolore txikiak.

Maite ditut kalean aurkitzen ditugun

---

**“Ez da bearrezkoa, baina horregatik da hain berezia”**

---

poster solidario edo aldarrikapen bat adierazten dutenak, hormetan itsatsita geratzen diren ahotsak.

Maite ditut orrialde batetik bestera oharkabea eramaten zaituzten liburuak, denboraren kontzientzia ahaztea eragiten dizutenak.

**MAITANE APODAKA**  
Lehen Hezkuntzako irakaslea



Maite ditut egun hotzak berotzen dituzten eguzki izpiak, zilar koloreko egun goibelak urre bihurtzen dituztenak.

Maite ditut musika entzutean besteen begiradak aintzat hartu gabe dantzatzen duten pertsonak, ezezagunak lagun bilakatzen dituzten uneak.

Maite ditut ere pertsona irekiak, bizitzari beldurrik gabe baietz esaten diotenak eta besoak zabal-zabalik dituztenak.

Baliteke magia bertan aurkitzea: kanela apur horretan, purpurinaz betetako gorputzean, aurpegi distiratsuetan, amets ausartetan edo dantza lotsagabeetan.

# Positibismoaren aroa

**B**young-Chul Han-ek gaur eguneko positibotasunaren indarkeria salatzen du. “Nahi baduzu, ahal duzu” entzuten dugu nonahi, eta onuragarria dirudien sinesmen horrek gizartea permisibitatez eta tolerantziatziaz jantzi du. Izan ere, itxaropena, ekimena eta autokonfiantza bezalako balioak bultzatzen dituen mezu sasi-positibo hau pixka bat urratuz gero, konturatuko gara norbanakoari uzten diola erantzukizun osoa, eta baldintza sozioekonomikoen garrantzia gutxietan duela. Nahi baduzu, ahal duzu; beraz, zurea da meritu eta erru osoa eta,aldi berean, ni ezin naiz zure kontuetan sartu, ez epaitzeko ezta konfrontatzeko ere. Bakoitzak bere proiektua, bere bizitza, bere balioak ditu eta erlatibismo horretatik kritika, desadostasuna edo balio unibertsalagoen defentsa inposi-

---

**“Positibotasunaren indarkeriak hezkuntzan eragin zuzena izan duela uste dut”**

---

zio edo erasotzat hartzen da. Beste alde batera begiratzea, berriz, tolerantziaren ikurra bihurtu da.

Ez -ikusiarrena egiten dugu makro zein mikro arazoen aurrean. Ur handitan sartu barik, gure inguru hurbilean denok ditugu adibideak. Nor ausartzen da, adibidez, berea ez den ume baten jokabidea zuzentzera?

*Positibotasunaren indarkeriak hezkuntzan eragin zuzena izan duela uste*

**ALAI SAENZ ORBE**  
Filosofia irakaslea



dit. Alde batetik, irakasleari gero eta gehiago kostatzen zaiolako ikasleak suspenditzea familiaren erreakzioaren beldurreratik (ondoko herri batean, guraso batzuk abokatu bat kontratatuz iritsi dira gai honengatik) eta, bestetik, ikasleak espero bezain nota ona ateratzen ez duenean, frustrazioa, etsipena eta antsietatea sentitzen dituelako. Baxilergora iritsi arte sinestarazi diotena -ahaleginduz gero, bikaina lortuko zuelabat-batean bolizko dorre baten gisa erortzen da.

Denok dakigu eroriz ikasten dela oinez, baina ez huts egite hutsagatik; aitzitik, akats horien inguruan hausnartzeagatik eta noberak zein besteek proposatutako aldaketa eta zuzenketak gauzatzeagatik. Hortaz, positibotasunaren indarkeriaren aurrean, aldarrika dezagun negatibotasunaren balioa.

## BERRI LABURRAK



### Sakatuk Euskal Herriko 5. Elektrotzaranga Lehiaketa irabazi du

Maiatzean parte hartzaileak Azpeitian jo dute asteburuetan, sei talde aritu dira eta Txorierriko taldeak irabazi du lehen saria. Horrela, 5.000 euroko saria eta saninazioetan berriro Azpeitian jotzeko aukera izango dute. Lehen aldiz parte hartu Sakatuk Euskal Herriko Elektrotzaranga Lehiaketan eta irabazi egin dute. Azpeitiko Udalak eta AZTEK (Alde Zaharreko Tabernarien Elkarte)

bosgarrenez antolatu dute. Maiatzeko lau zapatutan egin dute lehiaketa. Aurtun lehiatu diren taldeen maila "aparta" izan dela azpimarratu dute antolatzaileek, eta "musikaltasuna, sonoritatea, interakzioa, martxan jotako musika, abestien aniztasuna, euskara, parekidetasuna eta beste irizpide batzuk kontuan hartuta" erabaki du epaimahaiak txapelduna.

### Sondikako Udalak eta Eragintza Fundazioak lankidetzan hitzarmena sinatu dute

Helburu dute gizarte inklusioa eta ongizatea sustatzea. Akordioari esker, Fundazioak Artebe kiroldagiko lorategia eta Gorondabeko kiroldagiko pista

erabili ahal ditu bere jardueretarako. Eragintzak osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonak laguntzen ditu gizarteratze eta laneratze prozesuetan.

### Lehen aldiz ospatuko dute Lezamako Gazte Eguna uztailaren 4an

Lezamako Gazte Asanbladak "beste pauso bat eman eta hitzordu garrantzitsua" jarri du uztailaren 4rako: lehen aldiz Gazte Eguna ospatuko dute. Lezamar gazteek hilabeteak daramatzate "gogor eta konpromezuz" lan egiten egun osoko egitarau oparoa antolatzeko.

Ez dago herririk gazterik gabe. Lelo horren atzean egin dute lan gazteek Lezaman bizi eta harremantzeko ditugun "oztopoen gainetik", herrian duten "rola plazaratu eta aisialdirako eta harremanetarako eredu alternatibo bat" proposatu nahi izan dute. Hain zuzen ere, Gazte Asanbladak azkenengo urteetan antolatu dituen ekintzetan herriak "argi" ikusi du badagoela "antolatzeko eta proposamen berriak ekartzeko gogoak dituen gazteria". Egitaraua 38. orrialdean duzue.

### Bizkaibizi bizikleta zerbitzua ekarri nahi du herrira Zamudioko Udalak

Zamudiok mugikortasun jasangarriaren aldeko beste pauso bat eman nahi du. Horregatik, udalak Bizkaibizi zerbitzuarekiko interesa "formalki" adierazi du, Bizkaiko Foru Aldundiak sustatutako bizikleta publikoen alokairu sistema udalerrian ezartzeko aukera aztertuz. "Ekimen honen helburua da mugikortasun jasangarriagoa, osasungarriagoa eta eraginkorragoa sustatzea, bizikleta eguneroko garraiobide gisa bultzatuz eta ibilgailu pribatuaren erabilerari alternatibak eskainiz". Azaldu dutenez, proposamenak Zamudion bizikleten ainguratze-puntuak eta zerbitzuaren ezarpen progresiboa aurreikusten ditu, udalerriko konektibitatea hobetzen laguntzeko.



Zamudio - Derio - Sondika - Lezama - Larrabetzu - Loiu

24h 94 480 09 09

ERRESERBAK:

[www.taxisaeropuertobilbao.com](http://www.taxisaeropuertobilbao.com)

DESKARGATU APP-A



TAXI FEMADE



## Iker Muniainek ez du CD Derio entrenatzen jarraituko

CD Deriok jakitera eman du Iker Muniain entrenatzaileak ez duela taldea zuzentzen jarraituko 2026-2027 denboraldian. Bigarren Federazio mailari igotzeko kanporaketak jokatutuzte, “denboraldi historikoa” osatuz. Klubak Athleticeko jokalariei ohiari “lana, profesionaltasuna eta konpromisoa” eskertu dizkio. Muniainek, berriz, bere entrenatzaile ibilbidea hasteko “toki ezin hobea” aurkitu duela onartu du.



## Txorierriko Mankomunitateak ipuin bilduma argitaratu du

Txorierriko Mankomunitateak, 2021-2025 urteetan sarituak izan diren ipuinekin, ipuin bilduma liburua argitaratu du. Eskuratzeko hiru aukera daude: Flipbook [https://labur.eus/Ipuin\\_Bilduma](https://labur.eus/Ipuin_Bilduma), Ebook [https://labur.eus/Ipuin\\_Bilduma\\_Ebook](https://labur.eus/Ipuin_Bilduma_Ebook) eta Txorierriko liburutegiak eta euskaltegiak.

## BERRI LABURRAK



ESTACION PODCAST

## Oier Bravo Alonso sondikoztarrak *Audiogile Berriak* deialdia irabazi du

Hirugarren urtez egin dute *Audiogile Berriak* egitasmoko deialdia Tabakalera kultur zentroak eta EITBk, “euskarazko audio fikzioen sorkuntza sustatzeko asmoz”. Oier Bravo Alonsoren Txorierri kokatutako *Lehendabiziko ordua* hautatu dute. Bravok idatzitako soinu fikzioa ekotzi eta estreinatuko du EITB taldeak. Bravok “oso pozik” jaso du albiste: “Proiektu profesionala da, duela hiru urte amaitu nuen gidoi masterra eta hainbat gauza egin ditut, baina EITBren eskutik lan egitea oso polita da ekointze profesional batekin egingo dudalako lan. Gero, gainera, plataforma guztietan jarriko dute entzungai”. Hala ere, onartu du txip aldaketa bat egin behar izan zuela deialdira egokitzeke, batez ere ikus-entzunezkoekin eta musika munduarekin (Matxinada taldeko kidea da Bravo) egon delako lotuta. “Erronka bat izan da, baina musikarekin daukadan erlazio horregatik nahiko erraz atera zitzaidan. Pertsonalki, mundu guztiak entzun ahal izateak bai ematen didala bertigo puntu bat, baina gogoekin nago”. Istoria Txorierri kokatzea ez da kasualitatea izan, kostunbrismoa eta bertokoaren aldeko apustua egitearen zale da da sondikoztarrak. “Erosketak egin

ostean, Derioko errepidetik itzultzen etorri zitzaidan ideia burura: zergatik ez kokatu Hirugarren Mundu Gerra bertan. Gure herria eta gure hizkuntza bereziki aldarrikatu behar dugula uste dut. Naturalena, agian, Bilbon kokatzea izango litzateke, baina nire errealitatera ekarri nahi nuen”.

### ISTORIA, TXORIERRI

Bravok sortutako istorioa Txorierri dago kokatuta: Mundu Gerra lehertu eta minutu gutxira, Ane autoz abiatu da, Txorierriko eskualdean barrena, aitonaren bila zahar etxe batean bakarrik geratu ez dadin. Irratiaren bidez heltzen zaizkion albiste zatikatuek eta kalean hedatzen ari den kaosak aurrera jarraitzea gero eta arriskutsuago bihurtuko dute. “Bidean, Anek hainbat erabaki hartu beharko ditu: nori lagundu, nori ez, eta zer prezio duen konfiantzak mundu kolapsatu batean. Ustekabeko desbideratze batek, ustezko ezagun bat autora igo eta gero, tranpa inprobisatu batera eramango du, eta bere helburua tupustez urrunduko da. Kanpoko munduak hondoratzen jarraitzen duen bitartean, Anek gerra propio eta bakarti bati aurre egin beharko dio bere oraina babesteko”.

## BERRI LABURRAK

### 2,2 milioi euroko aurrekontu aldaketa onartu dute kiroldegi berriaren lehen fasea hasteko

Derioko Udalak ekainaren 2ko osoko bilkuran onartu zuen 2,2 milioi euroko aurrekontu aldaketa. Horrela, kiroldegia berritzeko eta handitzeko proiektuaren lehen fasea martxan jarri ahalko dute. EAJk alde bozkatu du, PSE abstenitu da eta EH Bilduk kontra bozkatu du. EH Bildutik adierazi dute “aurreikuspen falta” erakusten duela aldaketak. 2025-2028 Kirolaren Plan Estrategikoan jasotako jarduera estrategikoa da. Lehen fase horrek 2,5 milioi euroko kostua izango du, eta instalazioetara sartzeko eremua

eraldatzea izango du helburu, harrera, sarbideen kontrola, irisgarritasuna eta atondoaren berrantolaketa integrala hobetzeko. Lizitazioa ekainean hasiko da eta obrak urteko azken hiruhilekoan hastea aurreikusten dute. “Udalak lasaitasun-mezu bat helarazi nahi die DUKren erabiltzaileei, ahaleginak egingo baitira kirol jarduerak eraginik izan ez dezan. Nolanahi ere, udalak xehetasunez informatuko ditu obren hasiera hurbildu ahal izan daitezkeen eraginak eta behin-behineko sarbideak”, azaldu dute.

### Gorpuzti jaietako jai giro osasuntsua “ilundu” egin dute gertakari batzuek

Analisi sakonago baten faltan, Jai Batzordea “pozik” agertu da aurtengo jaien emaitzarekin. Hala ere, aitortu dute gertakari batzuek “ilundu” egin dutela Erandiogoikoako jaietako jai giro osasuntsua. Salatu dutenez, etxaldeak eta atariak txisatuta eta kakaztuta agertu dira. Larunbat gauean Ebusaren jarduera eten egin behar izan zuten atea hondatu zelako. Negutegi bati eta haren barruko ortuari su eman zitzaion eta zauri larriak eragin dituzten borrokak eman ziren as-

teburuan. Horregatik, nabarmendu dute Gorpuzti jaiak denentzako ongi-etorriak direla, “herritarren ongizatea kaltetzerara datozenak eta jaiak osasuntsuak izan daitezela oztopatzen dutenak izan ezik”. “Sentitzen dugu, neurri berean, mota askotako kalteak jasan behar izan dituzuenek egoera desategin horiek bizi behar izana. Orain arte bezala, gure esku dagoen guztia egiten jarraituko dugu giro alai, osasuntsu eta herrikoia sortzen jarraitzeko”, adierazi dute.

### Patricia Barron lezamarraren selektibitatearen inguruko bideoek itzelezko arrakasta izan dute

Unibertsitatera sartu nahi duten ikasleek dagoeneko esku artean dituzte selektibitateko notak. Bizkaian %93,79ak gainditu du. Zuzentzaile lanetan aritu da Aikor aldizkariko kolaboratzaile lezamarra, EHUKo irakaslea eta gizarte zientzietako ikertzailea baita. TikTok plataforman, selektibitatearen inguruko zenbait gomendio eman zituen bideo azaltzaile baten bidez. Barronen bideoek “sekulako hedapena” izan zuten, eta ondorioz, bideo gehiago grabatzera animatu zen. “Erantzuna oso positiboa izan zen, nire ustez, horrelako edukiak behar dituzte ikasleek, garrantzitsua da modu argi eta eskuragarri batean eskaintzea”, azaldu du. 3 milioi bisita baino bisita gehiago jaso ditu TikTok plataformako bere profilean. “Zenbakietaz haratago, jasotako mezu guztiekin geratzen naiz, ikasle askok irakasleen lana baloratzen dute eta eskaini ahal diegun laguntza guztia horrelako azteketa garrantzitsu baten aurrean”.



**E. Bilbao Bidaiak**  
autobus zerbitzuak

eneko@bilbaobidaiak.eus  
663 231 001

www.bilbaobidaiak.eus



KAFETEGIA · OKINDEGIA  
**LA MODERNA**

Egunero, 06:00etatik zabalik



Aretxalde, 64 - LEZAMA - 946 095 091



**ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA**

Santi Mami auzoa, 1  
Tel.: 94 454 10 06  
Faxa: 94 454 12 15  
48170 Zamudio (Bizkaia)



## EGAZ Txorierrik 26 enpresa eta 32 enplegu sortzea bultzatu zuen 2025ean

Erakundeak lagundutako ekintzailtza-proiektuek ia milioi bat euroko inbertsioa mobilizatu zuten eskualdean. EGAZek nabarmendu du ekintzailtzarako laguntza integrala erakundearen “ildo estrategikoetako bat” dela. 2025ean, EGAZ Txorierrik 21 proiektu ekintzaile lagundu zituen, eta, horien ondorioz, 26 enpresa berri sortu ziren eta 32 enplegu sortu ziren eskualdean. Gutxi gorabehera 990.000 euroko inbertsioa mobilizatu ahal izan zen, eta 730.500 euro eman ziren finantzaketan negozio berriak martxan jartzen eta sendotzen laguntzeko. Datuek erakusten dutenez, ekintzailtza ekosistema aktiboa eta askotarikoa da Txorierri, eta profil hauek konbinatzen dituzte: batetik, 35 eta 44 urte bitarteko gizonezkoek zuzendutako ekimenak, goi mailako ikasketak dituztenak; eta, bestetik, adin bereko emakumeek bultzatutako proiektuak, erdi-mailako ikasketak dituztenak. EGAZek nabarmendu du ekintzailtzarako laguntza integrala erakundearen “ildo estrategikoetako bat” dela oraindik, eta “aholkularitza pertsonalizatua, finantza orientazioa eta laguntza teknikoa” eskaintzen dituela enpresak sortzeko fase guztietan. “Ekintzaileei zuzeneko laguntza emateaz gain, 2025ean eskualdeko garapen ekonomikorako ingurune mesedegarriak sortzen lan egin zen, lankidetzak espazioak, digitalizazio programak eta bideratutako ekintzak bultzatuz. enpresa berrikuntza eta jasangarritasunera bideratutako ekintzak bultzatuz”. “Lortutako emaitzek agerian uzten dute Txorierri dagoen ekintzailtza-gaitasuna eta laguntza-baliabideak indartzen jarraitzearen garrantzia, ekonomia eta enplegu aukera berriak sortzen laguntzeko”.

## BERRI LABURRAK



### Loiu bigarren, Kirolur erronkaren lehen fasean

Bizkaiko Foru Aldundiak bultzatutako Bizkaia Kirolur Erronkaren lehen fasean bigarren geratu da Loiu: 600 euroko saria jaso du kirol materiala erosteko erabilitzeko. Lehen faseak izandako “parte-hartze handia eta erregistratutako jarduera bolumen nabarmena” izan dituela esan dute eta jarduera fisikoa sustatzeko ekimen dinamikoetako bat bezala finka-

tzen duela. Guztira Bizkaiko 60 udalerrik hartu dute parte, 5.095 pertsonak eman dute izena, 54.687 jarduera erregistratu dira eta 644.515 kilometro baino gehiagoko desplazamendu aktiboa metatu da. Udaberriko fasearen ondoren ligak udan jarraituko du, ekainaren 15etik uztailearen 15era, eta udazkenean amaizuko da, irailaren 23tik urriaren 23ra.

### Maitane Ariztik eta Maitane Perezek erdibana irabazi dute Mikel Zarate Literatura Saria

Bi irabazle izan ditu, ex-aequo, 2026ko Mikel Zarate haur literatura sariak. Batetik, Maitane Arizti Ugarteburuk idatzitako *Aitona elefante bat da*, eta bestetik, Maitane Perez Argotek idatzitako *Balearen kanta*. Erdibana emango zaie 4.000 euroko saria, baina bakoitzak izango du bere liburua, Elkar argitaletxeak udazkenean kaleratuta. Hala erabaki du Leire Bilbaok, Maribel Aiertzak eta Xabier Mendigurenek osatutako epaimahaiak. Aurten, zortzi lan aurkeztu dira eta epaimahaiak lanon “batz besteko maila altua” azpimarratu du. Eta azkenean, baten partez bi irabazle izatea erabaki. Ariztiren *Aitona elefante bat da* ipuinak egungo haur literaturan klasiko bihurtuz doan gai bat hartu du: “Kontalari eta protagonista den hauraren aitona burua eta eta are bizia era galtzea, baina modu

original, bizi eta baikorren osatu du egileak istorioa, idazkera dotorez eta umore etengabez”. Urretxuarra itzulpengintza, Frantsez Filologia eta Literatura Konparatua ikasi ditu, besteak beste. EHUKo Letra Fakultateko irakaslea da, eta horrez gain hainbat sari irabazi ditu narratiba zein poesia arloan. Argoteren *Balearen kanta* ipuinak, berriz, egungo gizartearen kezka bizia sortzen duten bi gai uztartu ditu: migrazioak eta ekologia. “Afrikatik Europara joan nahi duen neskatu bat da Hayda, baina txalupatik itsasora erori eta gero, balea batek hartuko du bere gain, eta hortik abiatuko da istorio samur bezain harrigarria”. Iruñarra idazle, aktore eta ipuin kontalaria da. Magisteritza eta Arte Dramatikoa ikasi zituen eta hainbat sari irabazi izan ditu bai antzerki zein narrazio arloetan.

## BERRI LABURRAK



### Denboraldi “arrakastatsuari” jai giroan eman dio amaiera Olarreta Pilota Elkartek

Larrabetzuko Pilota Elkartek ekainaren 20an eman zion amaiera 2025-2026 denboraldiari, jai giroan. Hain zuzen ere, sasoi amaierako jaiak ospatu zuten, eta besteak, beste Berriatuko Zesta Eskolaren bisita jaso zuten frontoian. Sasoiko dago pilota Larrabetzun. Adin guztietako 105 pilotarik baino gehiagok defendatu dute aurten Olarretaren elastikoa. Bizkaian zein Euskal Herrian hainbat txapelketetan parte hartu dute, baita zenbait txapel irabazi ere. “Denboraldi oso arrakastatsua izan

da, elkartea kopuru aldetik sendotzen doalako eta emaitza aldetik ere txapel asko irabazi direlako”. Hori guztia ospatzeko denboraldi amaierako jaiak ospatu zuten zapatuan. Txikienek partiduak jokatu dituzten goizean frontoian, gero, barbakooan elkartu ziren ume zein nagusiak, eta arratsaldean, Berriatuko Zesta Eskolako puntisten txanda izan zen. “Ikuskizun polit eta erakargarria eskaini ziguten”. Horrenbestez, dagoneko hurrengo denboraldian pentsatzen daude Olarretako kideak.

### Jaurlaritzak luzatu egin du seme- alabak dituzten familientzako diru laguntza

Araba, Bizkai eta Gipuzkoako familiek, aurrerantzean, seme-alabek 4 urte bete arte jaso ahalko dute Eusko Jaurlaritzak emandako hileroko laguntza. Neurriaren helburua da familia guztiei “gutxieneko baliabideak bermatzea eta haurren pobrezia saihestea”. Orain arte, haurrek 3 urte bete arte jaso zezaketen laguntza hori seme-alabak zituzten familiek: 200 euro hilean, haur bakoitzeko. Adinaren epemuga luzatzea ez da onartutako aldaketa bakarra: 4 eta 7 urte arteko seme-alabak dituzten guraso bakarreko familiek eta familia ugariak ere diru laguntza jasotzeko aukera izango dute; 100 euro hilean. Gainera, harrera eta tutoretza familiek ere jaso ahal izango dituzte diru laguntzak. Neurriak aurtengo urtarrilaren 1era arteko atzerako eragina izango du, eta ekain amaieratik aurrera eskatu ahalko da. Diru laguntza eskatzeko baldintzak dira, besteak beste, Bizkai, Araba edota Gipuzkoan bizi eta erroldatuta egotea haurren bizileku berean, gutxienez urtebetez, eta adingabearen bizikidetzeta eta zaintza bermatuta egotea.



**SUKALDEAK**  
insukaldeak.com

**BILBAO**  
**T. 94 402 82 54**

Lehendakari Aguirre 175-177.  
48015 Bilbao

**DERIO**  
**T. 94 656 85 69**

Txorierriko etorbidea 9. Ed. Arteaga.  
48160 Derio




**NAHI  
DUZUN  
SUKALDEA**

25 urteko esperientziak bermatzen gaitu.  
Doako finantzaketa.



## Uribe On tour 2026, esperientzia onez betetako udara bidean

Aurtengo udako Uribe On Tour programak, berriz ere, harridura sortzen du bere askotariko ekintzekin, kostaldeak eskaintzen dizkigun gauza on guztiak eta Bizkaiko eskualde honen barrualdearen xarmak konbinatzen dituzten esperientziak biziaraziko dizkigutenak.



**A** lde horretatik, antolatutako jardueren aniztasunak eta kalitateak planak neurrira eta gustu guztietarako moldatzeko aukera bermatzen die bisitariei.

Edizio berri honetan, eta dagoeneko 7 dira, Uribe, Bizkaiko Helmuga turistikoko adimenduna eta kalitate handiko gisa sendotzen ari da. Eskualde honetako paisaiaren edertasunak, bertako herriei, jendeari eta uda garaian abian jartzen diren kultura, arte, gastronomia eta aisialdi ekimenei lotuta, bisitari ugari erakartzen ditu uda bakoitzean, turismo arduratsu, hurbil eta landatar batez gozatzeko prest.

Aurtengo Uribe On Tour programak bertako gastronomia ureztaturako bidea hartuko du berriro bere txakolin bikainarekin, upategietara eta Bakioko Txakolingunera bisita gidatuen bidez. Artisautzako garagardo fabrikak, nekazaritzako eta abeltzaintzako azokak ere nahitaezko hitzordua dira tokiko produktua eta eskualdeko ekoizleen lana gertutik ezagutzeko.

Ibilaldiak geldialdiak ere baditu, Uribeko zenbait herrietako ondare arkitektoniko, historiko eta kulturean barrena bisita gidatuak eginez. Berangon, Burdin Hesiaren Oroimezko Museoak bere ateak irekitzen ditu Bilbo Gerra Zibilean tropa fran-

kistengandik babestea helburu zuen babeserako eraikuntza honen historia interesgarria ezagutzeko. Eta aurtun, kostaldea berritasun interesgarriekin dator; izan ere, surf ikastaroez eta eskualdeko hondartzek eskaintzen dizkiguten aukera guztiez gain, Uribe On Tour barruan, itsasontziz irteera ugari antolatu dira, jarduera erakarriekin, hala nola, alturako arrantza edo Gaztelugatxeko zeharkaldiak. Eta bere itsasertzeko xarmekin jarraituz, Uribe On tour 2026 bere plater nagusietako batekin itzuliko da: Bizkaiko Flyscharekin.

Uribe eskualdean ondare geologikoak duen balio turistikoko handiak erakusten du oraindik ere inguru horretan eskaintzen diren esperientziak gehien eskatzen direnak direla. Geologo adituek gidatutako bisitak eta abentura-jarduerak (4x4 ibilbideak, adibidez) izango dira paisaia ikusgarri honetako jarduera nagusiak. Uribe On Tourreko bisita eta jarduera guztiak uztailean eta abuztuan izango dira. 2026ko programa osoa eta erreserbak [www.uribe.eu](http://www.uribe.eu) webgunean kontsultatu ahal izango dira.


Edizio berri honekin, udako hilabeteetan Uribeko eskualdea sustatzeko hitzordu garrantzitsuenetako bat finkatu da, eta, urtez urte, interesa eta asistentzia handitzen jarraitzen du. ●



# Uribe On tour 2026



Euskadi / Bizkaia / Uribe



Uribe On Tour itzuli da uda honetan ere, eskualdeko onena konbinatzen duten jardueraz betetako programa batekin: gastronomia, txakolina, artisau-garagardoa, bisita gidatuak, abentura, kultura-ondarea, Bizkaiko Flyscharen inguruko ibilbideak eta tokiko zapore eta tradizio guztiez betetako azokak.

Gainera, edizio berri honek Uribeko kostaldearen xarmak ezagutzeko norabidean jarriko zaitu, itsasontziz egindako hainbat zeharbideren bidez.

Zer gehiago eska dakiok?

Goza ezazu eta esperientzia onez betetako bilduma bat eraman ezazu etxera.

Sartu [uribe.eu](http://uribe.eu) webgunean eta eman izena gogokoan.



[www.uribe.eu](http://www.uribe.eu)



## ZOZKETAK

Aikorren komunitatearen parte izateak saria du. Hilero hainbat sarrera eta opari zozkatuko ditugu gure irakurleen artean. Argibide gehiago: [aikor.eus/zozetak](http://aikor.eus/zozetak)



### Lakioa liburua

Elkar argitaletxearen eskutik

Zozketan izena emateko azken eguna: **Uztailak 12**



### Amamaren grafitiak liburua

Toti Martinez de Lezearen eskutik

Zozketan izena emateko azken eguna: **Uztailak 12**



### Liburu on bat liburua

Elkar argitaletxearen eskutik

Zozketan izena emateko azken eguna: **Uztailak 12**



### Hontza Museorako sarrerak

Hilero Hontza Museorako sarrera bikoitza!

Zozketan izena emateko azken eguna: **Uztailak 12**



### JumpYarderako sarrerak

Hilero hilero JumpYarderako sarrera bikoitza!

Zozketan izena emateko azken eguna: **Uztailak 12**

### AURREKO HILABETEKO IRABAZLEAK:

Eguneko menua Baserri Antzokian:  
**Nerea Guarrotxena**

JumpYarderako sarrerak:  
**Miren Garaiurrebaso Cristobalena**

Hontza museorako sarrerak:  
**Jon Izquierdo Aramburu**

Kalak Bitxiak belarritako pareak:  
**Nahikari Laita Marcaida**

Enda Lur eta Arbasoen Ituna eleberriak:  
**Leire Iturrioz Mardaras**



### Eguneko menua bi pertsonarentzat BASERRI ANTZOKIAN

Hilero bi lagunentzako menua zozkatuko dugu zuzenean gure aikorlagunen artean. Ez da beharrezkoa izena ematea.



## MOLANO ILEAPAINDEGIA

# Molano, 50 urteko esperientziadun ileapaindegia

Molano ileapaindegia 1976ko urtarrilaren 7an zabaldu zituen atea. Hau da, 50 urte luze eta oparoko ileapaindegia da, lehendabizi Tomas Molanoren eskutik, eta gaur egun Iñaki bere semeak darama ileapaindegiaren ardura.

**A**stelehenetik barikura 09:30etik 13:30era eta 15:30etik 19:30era dago zabalik eta zapatuetan 08:30etik 13:30era. Derioko Urkiola kaleko 2. zenbakian dago kokatuta eta hitzorduak 94 656 70 44 telefonoaren bidez hartu daitezke. Txorierriko establezimendu zaharrenetako bat da, erreferentea, ez bakarrik Derion, baita bailaran ere. Gaur egun gero eta bizartegi gehiago daude, baina ez Molano be-

zalakoak. “Hurbileko tratua eskaintzen dugu, bezeroa ezagutzen dugu, bada-kigu zer eta nola nahi duen mozketa”. Hain zuzen ere, Molano ileapaindegian “garrantzitsua” da hurbiltasuna, bezeroaren gustuen edota bizimoduaren berri izatea egokitutako ile mozketa bat egiteko. Belaunaldi desberdinetako familiei moztu izan diete ilea. Horrela, askotariko mozketak osatzen dituzte, ilea bakarrik ez, bizarra ere moztu edo

egokituz. “Bakoitzaren beharrianetara egokitzen gara eta eskatzen badigute, aholkuak ere ematen ditugu, zalantzak izatekotan”. Esperientzia handia dutelako eta profesionaltasuna ere ez da falta Molano ileapaindegian. Iñakik Euskadiko zein Espainiako Txapelketak irabazi ditu, baita Munduko Txapelketan parte hartu ere. Aurten, adibidez, lehen postuan amaitu du freestyle modalitatean eta hirugarren mozketa klasikoan.

**TXORIERRIKO GIDA  
KOMERTZIALA**



# Erromara arte bizikletan, eta kuadernoarekin

## ANGEL SERRANO MARTINEZ

Angel Serrano askok eta askok Txorierriko Institutuagatik ezagutuko dute. Guraso Elkartean egon da lanean urte luzetan, besteak beste, bertan ikas materiala banatzen. Nor ote ez da pasatu elkarteko egoitzatik institutuko garaietan. Milaka istorio ditu horren ingurukoak, baina baita ere beste bat orain arte ezezagunagoa: 1960an Erromara bizikletan joan zenekoa.



MIKEL REINA BARROS ANER MENTXAKA ALVAREZ

**L**eintz Gantzagako Dorletako Santutegitik abiatu eta Vatikanoraino bizikletaz joan ziren Angel Serrano, Jose Luis bere anaia eta Jose Luis Saenz gasteiztarra. Baina zergatik? Dorletako Ama txirrindularien zaindari izendatzeko. “Bilboko klubarekin zikloturismoa egiten genuen. Baionakoekin eta Labastide-d’Armagnaceko jendearekin harremana genuen eta bertako ibilbideetan parte hartzen genuen. Zirria sartu nahi izan ziguten esanez Frantzia eta Italian, adibidez, beraien zaindaria zutela. Gainera, Bartzelonan bazegoen zurrumurrua Montserrat Espainiako txirrindularien zaindari izendatu nahi zutela. Beraz, geuk gurea ere izan nahi genuen”. Baina zergatik Leintz Gantzagan? “Bertan ia topo egiten dute Arabak, Bizkaiak eta Gipuzkoak”.

Horregatik osatu zuten Vatikanora arteko 2.948 kilometroak. “Eromena”. Hain zuzen ere, hainbeste urtetan banatu

dituen kuaderno horietako batean gaue-ro idazten zituen Serranok abenturaren nondik norakoak: kilometroak, gastuak eta egunkariak. Oraindik denak dauka behar bezala banatuta eta antolatuta. 12.600 peseta gastatu zituzten bidaiari, baina diru laguntzen bidez 10.500 peseta jaso zituzten. Horrez gain, orduko Kas taldeak mailotak eta txandalak utzi ziz-



Orain, [aikor.eus/nahieran](http://aikor.eus/nahieran) atalean ere ikusgai

kien bidaiarako. “Pena handiz bueltatu behar izan genituen, oso politak ziren”.

Are eta bereziago izan zen Serranorentzat bidea anaiarekin batera egitea. “Zorionez etorri zen, bera zen frantsesa zekien bakarra eta italiarra ere apur bat mendetatze zuen”. Abentura hutsa. Horrela laburbiltzen du Serranok bidaiaria. “Argi geneukan bakarra zen uztailearen 27an atera behar ginela eta abuztuaren 16rako itzuli”. Irten eta berehala, Pirinioetan sekulako ekaitzak harrapatu zituen. Pixkanaka Mediterraneorantz joan ziren eta Kosta Urdira osoa zeharkatu zuten, Niza eta Monaco igarota, Erromaraino.

Baina helburu nagusia San Juan XXIII. Aita Santuarekin elkartzea zen. Baita lortu ere. Baina ez Vatikanon, Castel Gandolfo, Erromatik beste 25 kilometrotara. Bertan egiten baitute oporraldia Aita Santuek. Harrera pribatu bat jaso zuten. Sartzeko, ordea, komeriak izan zituzten.



Serrano anaiak eta Saenz, San Juan XXIII. Aita Santuarekin, Erromako Koliseoan, Monacon eta Dorletako Santuategian egindako omenaldian.

“Ateko zaintzaileek esan ziguten korbata-  
rekin sartzea derrigorrezkoa zela, guk ez  
geneukan, beraz, merkatuko postu batera  
joan behar izan ginen korbata ziztrin bat  
erostera”.

Hunkigarria. Horrela gogoratzen du  
harrera. San Juan XXIII. Aita Santuare-  
kin hasiera batean gazteleraz hitz egin  
zuten: Bilboko Begoñako Basilikan lo  
egindakoa zen eta txirrindularitzaren  
jarraitzailea zen, Gino Bartalirena batez  
ere. “Bidaia ahaztezina izan zen, gogorra,  
baina bidez gozatu genuen”.

### OMENALDIA

66 urteren ostean, ekainaren 13an, ome-  
naldia jaso zuten Leintz Gantzagako Dor-  
letako Santutegian. Angel Serranoren 91.  
urtebetetze egunean. “Egun borobila izan  
zen”. Pentsa, bidaiatik ez zutela Serrano  
anaiek Jose Luis Saenz gasteiztarra ikus-  
ten. “Ilusio ikaragarria izan nuen omenal-  
diaren berri izan nuenean, ez nuen espero  
hainbeste denboraren ostean horrelako ai-  
tortzarik jasoko nuenik”. Dorletako Ama  
Elkarteko ordezkariak, Leintz Gantza-  
gako alkatea eta senideak elkartu ziren.

“Ezin dut hitzekin azaldu sentitu-  
takoia, jende asko zegoen eta ederra izan  
zen benetan”. Aureskua egin zieten  
Dorletako Santutegiko harreran, ekital-  
dia barrualdean, oroigarriak jaso zituz-  
ten, eta gero, familia argazkia atera zu-  
ten kanpoaldean.

Hain zuzen ere, askok eta askok ez  
zuten Serranoren istorio honen berri.  
“Prensan agertu garenez, bizilagun  
asko etorri zaizkit zorionak ematen eta  
esaten ez zutela ezagutzen nire txirrin-  
dulari alde hori”.

Familia osorako  
kalitatezko arreta,  
zure esku

Zerbitzu Berriak  
Logopedia  
Podologia  
Krimasajak

clinica dental  
**ZAINDUZ**  
hortz klinika

Txorierriko etorbidea, 9 - Lozja | Antzaga erakina | 48160 DERIO  
94 454 01 01 | 657 79 54 45  
info@dentalezainduz.com | www.dentalezainduz.com

LEIRE BEGOÑA

ULE-APAINDEGIA

MUNGIALDE ETORBIDEA, 20  
48160 DERIO  
94 454 26 32

Jarrai jaraguzu Facebook-en

**Ala-apaindegia**

M<sup>a</sup> Antonia Llodio TXPI

Txorierriko etorbidea, 6  
Tel.: 94 452 02 70

48170 ZAMUDIO (Bizkaia)



MIKEL REINA BARROS GOITIOLTZAKO JAI BATZORDEA

## GOITIOLTZAKO JAIK

# Bete-beteko asteburua Goitioltzan

Goitioltzako jai batzordeak auzoko jaiak ospatuko ditu uztailaren 10etik 12ra. Asteburu bakarrean bete-beteko egitaraua antolatu dute, ohi bezala, betiko ekintzak daude programan, baita berritasun txikiren bat ere.

**U**ztailaren 10ean, ohi bezala, umeen jolasekin emango diete hasiera jaiari. Eztanda ofiziala, ordea, 20:00etan emango diote Goitioltzako jai batzordekoek txupinazoarekin. Iluntzean eta gauean musika izango da protagonista dultzaineroekin, DJ Kakus umeentzako ikuskizunarekin eta DJ Elepuntorekin.

Zalantza barik Goitioltzako jaietako elkargune nagusietako bat paellak dira. Haien inguruan elkartzen dira zapatuan egun osoan zehar auzoan. Uztailaren 11n, 10:00etan, mahai eta aulkien banaketarekin hasiko dira elkartzen. Hain zuzen ere, mahaiak eta aulkia eskatzeko azken eguna uztailaren 9a da. Mahai batek eta sei aulkik 12 euroko prezioa dauka. Interesa dutenek 660 51 42 30 edo 659 62 47 44 telefono zenbakira deitu behar dute. 13:00etarako eman beharko dute izena paella lehiaketan parte hartu nahi dutenek eta ordubete geroago aurkeztu beharko dute bazkaria. “Asteburuko ekintza nagusia da, jende gehien elkartzen duena. Iaz 35 paella aurkeztu

ziren, baina beste asko izan ziren paella egin eta aurkeztu ez zutenak”, azaldu dute Jai Batzordetik.

Ekintzarik ez da faltako jaietako egun nagusian. Hutsik egiten ez duten ekimenak eta berritasunak uztartuko dituzte: Kurutze dantza taldearen emanalditik eta umeentzako ur puzgarrietatik Zorribike eta Zorritzketan taldeek antolatutako toponimia ibilbideetara. Taberna Ibiltariak, Joselu Anaiek eta DJ Reketabek izango dute jai giroa luzatzeko ardura.

Hain zuzen ere, Jai Batzordetik nabarmendu dute musika taldeak iaiztik dituztela hitzartuta. Aipamen berezia egin nahi izan diote Joselu Anaiei: “Goitioltza betidanik izan da erromeria plaza, bertora Hegan edota Akelarre bezalako taldeak etorri dira, baita Joselu Anaiak bebai. Horregatik, iraganari keinu bat eginez berriro ekarri nahi izan ditugu, garai horiek berreskuratu nahi izan ditugu. Ilusio handia daukagu auzotarrek horrelako taldeak ikusi ahal izateagatik, dantzan jarri nahi ditugu”.

Egitarauko berritasun nagusia Zorritzketan euskara elkarteak Zorribikeekin batera antolatutako toponimia ibilbidea da. “Konturatu gara askok baserri baten izena esaterakoan ez dakitela auzoko zein den, beraz, ibilbide bat osatuko dugu eta gure inguruko baserriak ezagutuko ditugu”, azaldu dute. Iaz bezala, euskara elkartearen eskutik, bertso txakoli dastaketarekin emango diete amaiera aurtengo jaiari. Aurten, Etxahun Lekuek eta Oihana Bartrak abestuko dute.

### ERRELEBO FALTA

Auzotarrek egindako jaiak izanik, Jai Batzordean “errelebo falta” sumatzen dute. Azaldu dutenez, azken urteetan jende gazte gehiago sartu bada ere, “parte hartze handiagoa” behar dutela diote asko direlako hogeitau urte baino gehiago daramatzatenak Jai Batzordean. “Inoiz ez gaude jende nahikoa, beti nahi dugu gehiago. Momentuz gaudekin aurrera jarraitzen dugu, baina ez dakigu noiz arte”. ●

# GOITIOLTZA KO



JAIAK  
2026  
LEZAMA

## 10 UZTAILA - BARIKUE

- 18:00 Umeen jolasak
- 20:00 Txupinazoa + Dultzaineroak
- 21:00 **DJ KAKTUS** umeentzako ikuzkizuna
- 23:00 **DJ ELEPUNTO**

## 11 UZTAILA - ZAPATUE

- 10:00 Mahai eta aulkien banaketa
- 10:30 Toponimia Ibilbidea Goitioitzatik  
ZORRIBIKE eta ZORRIZKETANek antolatuta
- 12:00 KURUTZE DANTZA TALDEAren emanaldia
- 13:00 Paellen izen ematea
- 13:00 KITTU
- 14:00 Paellen aurkezpena
- 17:00 Umeentzako ur puzgarriak
- 17:30 Igel txapelketa
- 20:00 **TABERNA IBILTARIA**
- 22:00 **JOSELU ANAIK**
- 01:00 **DJ REKETABE**

## 12 UZTAILA - DOMEKA

- 13:00 Bertso Txakoli Dastaketa. ZORRIZKETANen eskutik  
Bertsolariak: **Etxahun Lekue - Oihana Bartra**  
Jaien amaiera

ANTOLATZAILEA:



LAGUNTZAILEAK:



DULTZAINEROAK



Ayuntamiento de  
**Lezama** ko Udala

## Kalean, gazteengandik gertu: Aitor Irigoien, Txorierriko kaleetan hezitzaile

**A**itor Irigoien izango da hemendik aurrera Txorierriko kaleetan eta gazteen topalekuetan lanean arituko den kale-hezitzailea. Bere lana nerabe eta gazteengana hurbiltzea da, haien egunerokoa entzunez eta konfiantzazko harremanak eraikiz, kalean bertan eta aisialdiko espazioetan. Horrez gain, gazteen arteko saretzea sustatzea ere bada bere lanaren parte, harremanak sendotuz, elkar ezagutza bultzatuz eta komunitate-loturak indartuz.

Kale-hezitzailearen lana gertutasunean eta errespetuan oinarritzen da. Horregatik, esku-hartzea ez da espazio formaletara mugatzen; kalean, plazetan, lonjetan eta gazteek partekatzen dituzten beste gune batzuetan egiten da, haien errealitateei modu zuzen eta zintzoan erantzuteko, baita gazteen arteko harremanak indartzeko ere.

Aitorren ikuspegia argia da: pertsona guztien duintasuna eta aniztasuna errespetatzea, eta edozein indarkeria motari aurre egitea, berdintasunean eta zaintzan oinarritutako harreman osasungarriak sustatuz. Ikuspegi horretatik, gazteek espazio seguruak izan ditzaten lan egiten du, entzunak eta errespetatuak senti dai-



tezen, eta elkarren arteko loturak modu positiboan garatu ahal izan ditzaten.

Lan-ildo nagusien artean daude ohi-tura osasungarriak sustatzea, adikzioen prebentzioa eta arrisku edo ahultasun egoerak garai antzematea. Horrez gain, nerabe eta gazteei helduarorako bidean laguntzea ere bada helburua, orientazio akademiko eta profesionala eskainiz eta autonomia zein erantzukizunak pixkanaka garatzea bultzatuz, taldean eta sarean oinarritutako prozesuak indartuz.

Lan hori elkarlanean egiten da, Txorierriko Mankomunitateko beste arlo batzuekin batera, hezkuntza- eta gizarte-eragileekin koordinatuta, komunitatea indartzeko eta gazteen ongizatea erdigunean jartzeko, tokiko sareak sendotuz eta gazteen arteko elkarlana sustatuz.

Horren emaitza da GazteEkin izeneko programa, eta 16 eta 30 urte bitarteko gazteei arlo desberdinetako ekintza antzakin antolatzen dizkie: STEAM tailerrak, kirol saioak, emantzipazio-prozesuan agertzen diren kezken inguruko hitzaldiak eta espazio birtualak, emakumeen ahalduntzearekin lotutakoak, kulturartekotasuna, aniztasuna, berdintasuna eta errespetuzko jarrerak abiapuntu hartuta.

## Elkar zainduz, hobeto ospatzen dugu

**U**da eta jaiak iristean, gure herria bizitasunez betetzen da. Kaleak jendez gainezka, musika, topaketak eta ospakizunak edonon agertzen dira, eta lagunekin zein familiarekin une bereziak partekatzeko aukera izaten dugu. Jaiak komunitatea indartzeko eta elkarrekin gozatzeko espazioak dira.

### Baina, denok bizi al ditugu jaiak modu berean?

Errealitatea askotarikoa da. Pertsona batzuek askatasunez eta segurtasunez bizi dituzte jaiak; beste batzuek, aldiz, oztopo

edo deserosotasun gehiago aurki ditzakete. Emakumeek, LGTBIQ+ pertsonak, jatorri desberdinetako gazteek edo desgaitasunen bat dutenek ez dituzte beti espazio horiek baldintza beretan bizi.

Horregatik, guztion ardurua da jai inklusiboak eraikitzea. Ez da soilik antolatzaileen kontua; herritar bakoitzak ere badu zer esan eta zer egin. Errespetuz jokatzeko, diskriminazio egoeren aurrean ez isiltzea, lagunak zaintzea edo pertsona guztiak ongietorriak senti daitezen laguntzea urrats txikiak dira, baina garrantzitsuak.

Familiek eta gazteek ere funtsezko

papera dute. Jaiak aukera bikaina dira errespetua, berdintasuna eta zaintza bezalako balioak praktikan jartzeko. Izan ere, ondo pasatzea eta elkar zaintzea ez dira kontrakoak; alderantziz, giro atsegin eta seguruan gozaten da gehien.

Azken batean, jai arrakastatsuak ez dira soilik jende asko erakartzen dutenak edo egitarau zabala dutenak. Jai onenak izateko pertsona guztiek euren lekua aurkitu behar dute, nolakoak diren alde batera utzita. Jaiak denontzat direnean, herria ere denon espazioa bihurtzen da. Eta hori da ospatzeko modurik onena.





## Mihiluzek marka guztiak hautsi ditu!



**B**este urte batez, Mihiluze txapelketak izugarrizko arrakasta izan du Txorierriko 10-11 urteko umeen artean. Txapelketan parte hartu duten gazte kopuruari erreparatzea baino ez dago horretarako: Txorierriko herri ikastetxeetan, 5. eta 6. mailan 363 ume egon dira klasean ikasturte honetan eta horietatik 198 ume ibili dira ludoteka

eta gazteguneetan, otsailetik maiatzera jolasten: Deriotik 82, Larrabetzutik 34, Lezamatik 38, Sondikatik 24 eta Zamudiotik 20 ume.

Hona hemen aurtengo saridunak:

**1. postuan:** Lezamako Antton Mendiguren eta Paul Gerrikagoitia

**2. postuan:** Larrabetzuko Aitza Mada-

riaga eta Laida Pujol

**3. postuan:** Larrabetzuko Lier Garate eta Iraia Zabaleta

**4. postuan:** Zamudioko Massine el Atmioui eta Luciano Rivera

Lau bikoteek familian disfrutatzeko bidaia jaso dituzte.

Zorionak guztioi!

### TXORIERRIKO BERBAK

## Neskatoak eta andrazkoak

**T**radizinoz 25 bat urtetik aurrerakoei *andrak*, *andrazkoak* eta *andrakumeak* esan izan jake mendebaldean. Hiztegiek honela definitzen dabe *andrea*: "emakumea, bereziki ezkondua edo adin batetik aurrerakoa". Gure artean ez dogu hainbeste erabilten *emakume* berbea. *Andrak* eta *neskak*. Dana dala, azken hori (*neskea*) ume eta gazteak izentetako baino, helduakaz erabilten dogu.

Eta horren aurretik? Ume-umeak izateri itxitakoan *neskatoak* edo *neskatilak* izatera pasetan dira. Txorierrin *txapis-kola* eta *poxpolina* berba ederrak darabilguz neskatoengana hurreratzen garenean goxotasunez.

Kontuz ibili behar dogu *andra* eta *emakume* berbakaz, izan be erabilera okerra zabaldu da azken aspaldian: ume, gazte zein helduak izentetea berba horreekaz. Baina kontzeptu ezbardin bi dira *andrea* (emakumea) eta *andrazkoa* (emakumezkoa). Azken horreen definitzina: "sexu emekoa; sexu emeko pertsona". Edozein adin daukiela be.

Juan Antonio Mogelek bizkaiera ederra erabilten eban bere idatzi gehiengatan. *Peru Abarka* liburuan (1802) hau irakurri geinke: "Neskatiak urten lei nora nai bere ule trenza ederragaz; baña ez neskiak". Testu horren atzean orduko ohiturak ezkututzen dira. Neskatilek -edo neskatoek- ule luzea eroan ahal

eben; ezkondukoan, barriz, ulea tapatuta (bilduta) eroan behar izaten eben. Ezinbestean.

Sasoi baten *alkatesa* berbea zabalduzan alkate kargua eukien andrazkoak izentatzeko. Eta, harrigarria bada be, bazan *alkatesa* berbea alkatearen andreri esaten eutsanik! Gaur egun berba hori baztertzeo gomendioa egiten da. Alkatea esanda nahikoa, andrazkoa zein gizonzkoa izan. *Alkate andrea* badinogu, bide beretik *alkate jauna* esan beharko dogu, ostantzean, tratu berezia emongo deutsegu. Eta bardintasuna bilatzen dogu, ezta? Azken baten, hizkuntzaren bidez bardinak, baina era berean ezbardinak garelako erakutsi geinke.

# “Ardi Moztaileen Euskal Seleksioa erakusleiho bat izan da, ezagutzera eman du gure lana”

**JOSEBA UGALDE OLABARRI**



T MIKEL REINA BARROS    ANER MENTXAKA ALVAREZ

Lezamarrak Euskal Herriko Ardi Moztaileen Seleksioarekin parte hartu behar zuen lehen aldiz Zeelanda Berrian jokaturako Munduko Txapelketan, baina azken orduko istripu larri batengatik ezin izan zuen lehiatu. Guztiz osatzeko bidean, zazpi lurraldeetako seleksioa lortzeko prozesua aztertu du.

**H**asteko, zelan hasi zinen ardi moztaille lanetan?

Errigoitiko Bizkaigane Elkartean hasi nintzen lanean, bertan behiak, ardiak eta bestelakoekin lanak egiten dituzte. Egun baten ardi moztaille profesionalak etorri ziren ikastaro bat egitera eta ikaragarri gustatu zitzaidan. Aurretik, etxean eta lagunartean artaziekin ardiekin ibiltzen nintzen, baina profesionalekin harrিতa geratu nintzen eta bide horretatik ekin nion nire ibilbideari. Beraiekin ikasi nuen.

**Eta hastapen horietan, pentsatzen zenuen noizbait Euskal Seleksioa ordezkatuko zenuela Munduko Txapelketa batean?**

Ez. Inondik inora ere. Ez zegoen nire planetan.

**“Lehiatu ez, baina taldekideak animatu eta lagundu ditut, beraz, beste modu batean, baina parte hartu dut”**

**Eta zer suposatu du zuretzako aukera hori izatea?**

Oso berezia izan da. Azkenean, istripu batengatik ezin izan dut parte hartu, baina nirea bezala sentitzen dut. Gainera, prozesu osoan bizitakoa ikaragarria izan da. Lehiatu ez, baina gainontzeko

taldekideak animatu eta lagundu ditut, beraz, beste modu batean, baina parte hartu dut. Ohore bat izan da niretzako Munduko Txapelketa batean Euskal Seleksioa ordezkari izatea. Lanaren poderioz lortutakoa izan da. Ilusioa izan da nagusi. Azkenean, parte hartu ezin izan banuen ere, bide guztiarekin oso pozik nago. Nahiz eta ardiak moztu ez, euskal ordezkari bezala sentitu naiz.

**Munduko Txapelketan parte hartu arte, bidea eta prozesua luzea izan da.**

2023an lortu zuen Euskal Herriko Ardi Moztaileen Seleksioak ofizialtasuna. Aurreko Munduko Txapelketa Eskozian jokatu zen eta bertara Joseba Attard Euskal Ardi Moztaileen Elkarteko (EAME) lehendakariak dokumentu



Orain, [aikor.eus/nahieran](http://aikor.eus/nahieran)  
atalean ere ikusgai

pila bat eraman zituen ezin hobeto antolatuta Euskal Selektzioaren ofizialtasuna lortzeko. Beste selektzioen aurrean aurkeztu zuen eta aho batez onartu zuten Euskal Herriko Selektzioak hurrengo Munduko Txapelketan parte hartuko zuela. Aurten, berriz, Munduko Kontseiluan sartzea lortu du Euskal Selektzioak, hau da, hitza eta bozka izango du erabakietan. Bestetik, noizbait Munduko Txapelketa bat antolatzeko aukera ere daukagu.

#### **Eta hor hasi zen sailkatzeko prozesua?**

Ordezkariek hautatzeko ardi-moztaileen liga bat sortu zen, bi lehiaketaz osatuta, Frantzia osatu zirenak. Bertatik aterako zen Munduko Txapelketarako lehen ordezkaria. Bigarrena, lehen aldiz antolatu zen Euskal Herriko Ardi Moztaileen Txapelketako irabazlea izango zen. Ilusio eta lan ikargarria egon da atzean. Lehen aldia da Euskal Selektzioak bertako herrialde guztiak elkartzen dituen txapelketa batean parte hartzen duena. Zazpi herrialdeak, guztiak, elkarrekin. Egia da Iparraldekorik ez zela sailkatu, baina bai, adibidez, Nafarroakoa. Abadiñon, guraizeekin lehen postuan amaitu nuen eta makinarekin

## “Geurea zaindu behar dugu, bertan daukaguna garrantzitsua da ezagutzera ematea onena daukagulako etxe ondoan”

bigarren. Ligan, ordea, guraizeekin zein makinarekin txapeldun izan nintzen. Gero, erabaki nuen guraizezko nire postua beste lagun bati uztea. Aukera nuen bi modalitateetan parte hartzeko, baina beste parte hartzaile bateri uztea erabaki nuen. Makinarekin konfiantza ikargarria daukat nire buruarengan eta guraizeekin badaukat ere, baina ez da hainbestera makinarekin alderatuta. Azkenean, makinazko bi moztailleak Mikel Etxebarria eta biok izan ginen, guraizezko bi moztailleak Ipar Arrinda eta Josu Ekisoain, bi artilariek Janire Artabe eta Mikel Velasco eta taldeburua Joseba Attard.

#### **Zer sentitu zenuen 2025eko iraileko Abadiñoko lehen txapelketa hartan?**

Giroa izugarria izan zen. Mundu osoan zehar txapelketa askotan egon naiz, parte hartzen zein ikusten, eta Munduko Txapelketa bera bakarrik jarriko nuke Euskal Herriko lehen Txapelketan sentitu nuenaren parean. Munduko Txapelketa bat bezalakoa izan zen, baina formatu txikiagoan, geure modura eginda. Baserreri munduaren gorazarre bat izan zen. Harrera ikargarria izan zen herritarrengandik. Oso hunkigarria izan zen.

#### **Abadiñotik. Golden Shears World Championship txapelketara, Master-tonen, Zeelanda Berrian.**

Hilabete bat lehenago joan ginen. Nire helburua hiru hilabete lehenago joatea zen, baina kontu pertsonalak medio, atzeratu behar izan nuen bidaiari. Munduko Txapelketan Euskal Herria ordezkatzearen pareko prestakuntza bat osatu nahi nuen. Ez nekien berriro munduko onenen aurka indarrak neurtzeko aukerarik izango ote nuen, beraz, ahalik eta ondoen prestatu nahi nuen lehiaketa.

#### **Zeintzuk izan ziren prestaketa lan horiek?**

**ELORRIETA**  
INSTALACIONES ELÉCTRICAS

ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA  
INSTALAZIOAK, MANTENTZE-LANAK,  
KONPONKETAK...  
MATERIAL ELEKTRIKOIA SALGAI

info@elorrietainstalaciones.com 639 582 547  
Uribe kalea 12 behea · Derio 944 540 386

**aldekone**  
hortz klinika  
Tel.: 94 454 15 87

Anuska Prieto Aguilar  
Odontologoa

Uribe 7, behea  
48160 DERIO (Bizkaia)

- Especialitate guriak zintro bakar batean
- Aurrekontua doan
- Especialitatea: umeak

**OK**  
**OAKLAND**  
ENGLISH

L. LEIZAOLA PLAZA, 2 · ZAMUDIO  
946 522 857



Ardiak, esate baterako, desberdinak dira eta txapelketarako ardi horietara ohitu beharra dago. Horrez gain, forma hartu behar zaie, teknika nahiko unibertsala bada ere, bestelako mugimendu txiki batzuk eskatzen dituzte bertako ardiek, eta horietara ohitu beharra dago, gero txapelketan ahalik eta modurik naturalean eta azkarrenean atera ahal izateko. Mozterakoan, pentsatzen hasten bazara, emaitza ez da ona izango, natural atera behar da, barrutik ateratzen zaizun bezala. Bakarrik atera behar da.

#### **Eta zer topatu zenuen bertan?**

Entrenatzea bakarrik nuen buruan, ahalik eta ondoen prestatuta iritsi nahi nuen Munduko Txapelketara. Batzuetan nahi beste entrenatzen nintzen, eta beste batzuetan ez. Azkenean gure lanak hori dauka. Pentsa, hiru hilabete lehenago joatea zen nire lehen ideia. Orduan, bakarrik hilabete bat lehenago joatea eta nahi beste entrenatu ezin izatearekin amorrua ere sentitu nuen. Erlojuaren kontra aritu nintzen, baina azkenean sasoiko eta prest heldu nintzen.

#### **Eta entrenamendu batera zindoazela autoarekin istripu larria izan zenuen.**

Munduko ardi moztailerik onenetariko batekin nengoen geratuta entrenatzeko: Jack Fagan. Bere aita historiako ardi moztailerik onena izan da. Euskal Herri-  
ra etorri izan da ikastaroak egitera. Pozik nago hemen, bizirik, nagoelako kolpea oso handia izan zelako.

#### **Zer pasatu zitzaizun burutik momentu horretan?**

Gogoan daukat istripua gertatu eta ja-

---

## **“Orain niretzako garrantzitsuena istripuaren ostean guztiz osatzea eta nire lana lehen bezala egin ahal izatea”**

---

rraian ez nuela ezer sentitzen, adrenalinarekin, ez nuen minik. 10-15 minutura zerbait arraroa sentitzen hasi nintzen besoan, ez nuen minik, baina banekien zerbait ez zegoela ondo. Bikoteari hautatzaileari deitzeko esan nion, ezingo nuela lehiatuz esanez eta ordezkoren bat bilatzeko aukeraz galdetzeko. Azkenean, konpondu genuen eta beste batek hartu zuen nire tokia. Deia egin ostean eta errepideko bazter batean anbulatziari itxaroten geundela, dena etorri zitzaidan behe-  
ra bat-batean. Orduan konturatu nintzen gertatutako guztiaz. Ospitalera eraman eta ebakuntza egin zidaten: sahietsak, lepauztaia eta besoa birrinduta neuzkan. Hala ere, nire taldekideak animatzera joan nintzen, eta beste modu batera, baina esperientziaz gozatu ahal izan nuen. Euskal Herrira itzulitakoan izan nintzen gehiago kontziente galdutako aukeraz. Pozik nago hemen nagoelako.

#### **Beste 27 herrialdeetako ordezkari- kin elkartu zineten, zer sentitu du- zue Munduko Txapelketa baten parte hartzarekin?**

Denetarik. Azkenean elkargune bat izan

da. Lehen esan bezala, ardi moztaileren teknika ia unibertsala da, beti dago hobekuntzara tartea eta beste batzuen xehe-  
tasunen bat hartu dezakezu. Dantza bat bezalakoa da. Ez da lehen aldia munduko beste ordezkari batzuekin gaudela, baina bai lehen aldia gure koloreekin gaude-  
la, txapelketa ofizial batean eta guztiok egoitza berean. Hala ere, jende berria ezagutu dugu eta hori oso aberasgarria da. Dena oso arin pasatu zen niretzako, konturatu orduko bueltan geunden. Hurrengorako, berriro parte hartzeko aukera badudan, momentu bakoitza baliatu be-  
har dudala argi daukat.

#### **Dagoeneko hiru urte barrurako Australiako Munduko Txapelketan daukazu burua? Arantza geratu zaizu?**

Egia esan, ez. Orain niretzako garrantzitsuena istripuaren ostean guztiz osatzea eta nire lana lehen bezala egin ahal izatea da. Gaurkoaz gozatu beharra dago, biharkoa helduko da eta aurre egingo diogu. Nire ilusio nagusia gaur egun errekuperazioa da, pixkanaka hasi naiz berriro lanean, baina oraindik minak eta mugak ditut mugimenduetan. Behar bezala osatzekotan, oraindik urrun ikusten dut 2029. urtea. Kanpotik ikusita agian ez zait hainbesterako nabaritzen, baina mugikortasun eta indar arazoak ditut oraindik besoan. Horrez gain, ostera ere sailkatu beharko nintzateke eta zaila da iazko lorpen guztiak errepikatzea, dena ondo atera zitzaidan. Gainera, Munduko Txapelketan parte hartzeko nire onena eman beharra daukat, ez dut beste biderik ulertzen. Horretarako, ondo entrena-  
tu behar dut, ardi asko moztu eta hala



ere, ez dakit nire lehengo mailara iritsiko naizen. Ahaleginagatik ez da izango.

**Prozesu guztia bizi ostean, badaukazu sentsazioa ardi moztaleei ez zaizuela behar besteko garrantzia eman, adibidez, pilotako Euskal Selektzioarekin alderatuta?**

Bai, izan daiteke. Azkenean, pilota mundua askoz ezagunagoa da gurean,

telebistan ikaragarriko indarra dauka. Gure lana gehiago geratzen da itzalean, ofizio bat da. Egiari zor, ez dut telebistarik ia ikusten, eta beraz, ez dut jarraipenik egin, ezta gureari ere. Baserri munduan bai izan duela jarraipena eta lagunek eta ingurukoek asko galdetu digute. Azkenean, Ardi Moztaleen Euskal Selektzioa baserri munduaren eta ardi moztaleen erakusleihu bat izan da,

ezagutzera eman du gure lana. Batez ere mundu honekin harreman gutxiago daukan gizarteko zati horrentzako. Nire ustez, beharrezkoena baserri mundu hau da, jana sektore honetatik dator. Ez gara kanpora joan behar Mercosur bezalako akordioekin, geurea zaindu behar dugu, bertan daukaguna garrantzitsua da ezagutzera ematea, onena daukagualako etxe ondoan. ●

*Ekin eta ekin 38 urtez. Publikoa, irekia, guztiontzat.*



**TXORIERRIKO UDAL  
EUSKALTEGIA**



**UDAKO IKASTAROAK (UZTAILEAN ETA IRAILEAN)**

NOIZ	HELBURUA	ORDUTEGIA	ORDU KOPURUA	IZENA EMATEKO AZKEN EGUNA	MATRIKULA-PREZIOA
Uztailaren 1etik 24ra	Maila guztiak	9:00-14:30	90 ordu	Ekainaren 24a	111,6 €
Irailaren 9tik 29ra	Maila guztiak	Egunean 5 ordu	90 ordu	Uztailaren 13a	111,6 €
Irailaren 9tik 29ra	Mintzamina B1-B2-C1	Egunean 3 ordu	45 ordu	Uztailaren 22a	55,8 €
Irailaren 9tik 29ra*	B1-B2-C1	9:00-12:00 edo 16:00-19:00	45 ordu	Uztailaren 22a	55,8€

\*HABEren delaldi itxira joan diren ikasleentzat baino ez. Lehen delaldira aurkeztu diren ikasleak izan behar dira, idatzian edo ahozkoan gainditu ez dutenak; balta lehen delaldira joan ezin izan direnak ere, ekainean maila lortu dutelako.

**MATRIKULA ZABALIK, INFORMA ZAITEZ!**

Txorierri etorbidea 9, 1. lokala-erdisotoa - DERIO

944 540 062

euskaltegia@txorierri.eus





© JOSU URIBE


## ZAMUDIOKO I. RALLYSPRINTA

# Rallya Zamudiora itzuli da

5 urteren ostean Zamudio Racing Elkarteak rally formatua berreskuratu zuen maiatzaren 30ean. Jendetza elkartu zen bide bazterretan egun osoan zehar eta antolatzaileek eskerrak eman dizkiete rallysprinta posible egin duten guztiei. Xabier Lujak eta Jose Estradak lortu zuten garaipena 20 minutu eta 50 segundoko denborarekin. Bigarren izan ziren loritz Odiaga eta Iker Mintegi 27 segundora eta Aitzol Apalantzak eta Virginia Reguerok osatu zuten podiuma irabazleengandik 33 segundora.

**SARRIKOLA  
OGITEGIA**

Euskal pastela  
Basernko ogia  
Bizkotxoak  
Hainbat tarta

 Sarrikola, z/g Larrabetzu  
Tel.: 94 455 83 37  
619 78 58 84

**Goiri'78**  
ZERBITZU OFIZIALA

944 532 515  
goiritaller@fordgoiri.com

**ATEKA**  
Bosch Car Service

946 740 456  
ateka@bosch-bcs.com

Txorierri Etorbidea, 46 - Pab. 5C - 5D  
**SONDIKA**

Centro Dental  
**Txorierri**

**Rocío Astorkia Bordegaray**  
Col. nº 48000759

**Ainhoa Rodríguez Mella**  
Col. nº 48001337

**Igone Nieto Hernández**  
Col. nº 48001462

Mitxine 7, behea - 48150 Sondika  
(geltoki aurrean)  
Tfno. 944 711 639 - Larrialdia: 670 985 885  
www.cdtxorierri.es

**ORTODONCIA21**







## Flysch Bizkaia, lurra protagonista duen ikuskizuna

Getxo udalerriaren eta Uribe eskualdearen artean Bizkaiko Flyscha azaleratzen da, Euskadiko altxor geologiko handienetako bat eta esperientzia ugari bizitzeko agertoki ikusgarria.

**T**alka Handia deiturikoan, duela 110 milioi urte gutxi gorabehera, Bizkaiko kostaldean formazio harritsu apetatsuak azaleratu ziren, 60 milioi urtetan zehar itsaspean sortu zirenak. Altxor geologiko honen izar nagusia Flysch Bizkaia da, geologiako "Master Class" harrigarri bat jasotzeko gune bat baino askoz gehiago da. Bere inguruneak eta paisaia erakargarritasun handiak, gainera, gustu guztietarako abenturak eta esperientziak bizitzeko toki pribilegiatua bihurtzen dute.

### MILIOIKA URTEKO HISTORIAREN OIHALA ALTXATU DA

Bizkaiko Flyscheko arrokek ezkututzen dituzten sekretuak ezagutzeko aukerarik onena geologo adituek gidatutako bisitak dira. Oinez edo itsasontziz egin daitezke txangoak. Bi modalitateetan, hainbat irteera programatzen dira inte-

res geologikoko 16 lekuak bisitatzeko, bakoitza bere jatorriarekin, milioika urteko historiarekin eta berezitasunekin: meteorito handi baten aztarnetatik hasi eta itsaspeko sumendien erupzioetaraino, harkaitz forma apetatsuak sorrarazi zituztenak. [www.flyschbizkaia.eus](http://www.flyschbizkaia.eus) webgunean ere haurrentzako lekua dago. Bertan, Flissy herensuge bitxiak milioika urte daramatza altxor geologikoak zaintzen.

### ZURE HURRENGO ABENTURARAKO AGERTOKI NATURALA

Baina Bizkaiko Flyschak labar harrigarrak, bidexkak, kalak eta hondartzak ere eskaintzen dizkigu, aisialdirako, kirolerako eta abenturarako eszenatoki ezin hobekak izanik. [Flyschbizkaia.eus](http://Flyschbizkaia.eus) webgunean, ingurune ikusgarri honetan programatzen diren ekintza guztiak jasotzen dira, modu eguneratuan.

Aukerak askotarikoak dira, eta publiko zabala biltzen dute. Orain hain modan dagoen "tardeoetatik", baina belaontzietan, hondartzako yoga tailerretara, familiako jardueretara, surf ikastaroetara, coasteering-era, kayak irteeretara... Horrela, geoturismoa indar handiz sendotzen ari da Bizkaiko kostaldean zehar, eta horrekin batera, berekin dakartzan balio guztiak, tokiko garapenerarekiko konpromisotik hasi eta ingurumena zaindu eta errespetatzeraino.

Horregatik, urtero milaka bisitari erakartzen ditu geodibertsitateak eta Bizkaiko Flyscheko arrokek ezkututzen dituzten sekretuek. Harrituta geratzen dira, gainera, bere ingurunearekin, paisaia balio handiarekin, eskaintzen dituen aisialdi-aukera guztiekin eta, nola ez, Getxo eta Uribe eskualdea osatzen duten 24 herrietako berezitasun kultural eta gastronomikoarekin. ●





**FLYSCH**  
Bizkaia  
PARKE GEOLOGIKOA  
PARQUE GEOLÓGICO  
GEOLOGICAL PARK

FLYSCH BIZKAIA

# MILIOIKA URTEKO HISTORIAREN OIHALA ALTXATZEN DA



Sartu [flyschbizkaia.eus](https://flyschbizkaia.eus) webgunean eta ezagutu gure itsas zaindaria den *Flissy*ren altxorak





**TXERRA RODRIGUEZ**  
Hizkuntza aholkularia  
blogak/argia.eus/txerra-rodriguez

## MIHIGINTZA

# Tokira egokitua eta politika substantibo: Loiutik Larrabetzura

**M**ihigintzako aurreko artikuluan, euskararen egoerari buruzko diagnostiko orokorrari buruz egin nuen berba, Iñaki Iurrebasoren ikerketan oinarrituta. Laburbilduta, euskara sendoen dago atxikimenduan, erabileran espero baino altuago dabil eta, kontrara, gaitasunean dabil ahulen (xehetasun gehiagotarako begiratu martxoko artikulua).

Eta gauzak horrela, aurrera begira zer? Betiko dikotomia (faltsua) ekarri nahiko nuke orriotara: zer behar dugu hizkuntza politika aurreratua ala hizkuntza komunitate indartsua? (Beste berba batzuekin esateko, hizkuntza dinamikak aldarazteko non jarri behar da fokua, hiztunengan ala egiturazkoak diren elementuetan?). Gehienok honi erantzun logikoa emango genioke: biak behar ditugu, biak ditugu ezinbesteko. Hizkuntza komunitate indartsuari labor beharrez agentzia deituko diot eta hizkuntza politika aurreratuari egitura. Hortaz, agentziarekin bakarrik nekez lortuko dugu egoera zinez iraultzea, nekez lortuko dugu hizkuntzaren biziberritzean pauso esanguratsuagoak egitea. Baina egiturarekin bakarrik ere ez ditugu lortuko bilatzen ditugun helburuak. Eta, gainera, ez da ahaztu behar agentziak egitura elikatzen duela (hein batean, bai) eta egiturak ere agentzia elikatu behar duela. Hortaz, harako hark

**“Betiko dikotomia (faltsua) ekarri nahiko nuke orriotara: zer behar dugu hizkuntza politika aurreratua ala hizkuntza komunitate indartsua?”**

esaten zuen bezala: den-dena nahi dugu, agentzia eta egitura.

Aldaketa esanguratsuak beharko ditugu egituran eta, horretarako, beharrezkoa izango da hizkuntza politika aurreratua egitea. Baina, kontuz, hizkuntza politika ez da bakarrik euskara sailean egiten, ez, hizkuntza politika beste sail guztietan ere egiten da: arlo sozioekonomikoan, hirigintzan, ogasunean, gobernu organoetan ... Izan ere, hizkuntza politikan substantiboa eta hizkuntza da adjektiboa. Arreta gehiago jarri beharko zaie, beraz, sail horietatik egiten diren interbentzioei.

Horrez gain, eta Txorierri helduta, hizkuntza politika tokian tokira egokitu behar da. Larrabetzuko egoera eta Loiukoa

ez da bera eta, hortaz, ezinbestekoa izango da testuinguruari lotuago dagoen hizkuntza politika. Herri bakoitzaren izaera kontuan hartuko duen politika behar dugu Txorierriko euskaldunok. Hein berean, eta epe laburrean, Mankomunitateko euskara zerbitzua indartu beharko litzateke eta tokian tokiko plangintza konpartituak (eragileekin eta udalarekin) martxan jarri.

Hizkuntza politika aurreratuaz gain, komunitatea indartu eta trinkotu beharko da. Horretarako, euskararen erabilera %20tik beherakoa den herrietan (hau da, Txorierri osoan, Lezama eta Larrabetzura kenduta) gune babestuak eraiki beharko dira euskararen erabilera sustatzeko (horietako batzuk badira gaur egun, Derion eta Zamudion, Sondikan eta Loiun, baina gehiago behar dira eta daudenak indartsuago egon beharko dira). Eta Lezaman eta Larrabetzun politika berezia-goak egin beharko dira komunitatea indartzen jarraitzeko.

Diagnostikoan ikusten da euskararen gaitasunean gabiltzala astiroen. Beraz, ezinbestekoa izango da euskara eskuratzeko plangintzetan xeheago eta indartsuago jokatzea, bai helduen euskalduntzean bai familia transmisioan bai sozializazioan bai eskolan. Brotxa lodiz eta labor-labor horiek dira, nire ustez, etorkizuneko euskaldunon biziberritzeak behar dituenak Txorierri. ●



**JONE GOITISOLO URIARTE**  
Komunitatearen eraldaketarako teknikaria

BATUZ

## Eguzkipean ere, bada itzalik

**K**ontzientziari jabetzarik emateko astirik gabe, ia-ia automatikoki lotzen dugu udaren etorrera atsedendaldi, opor eta aisialdiarekin, baita gogo biziz hala desiratu ere. Garai honetan, bidaiak, ihesaldi txikiak edota lagun eta senideekin partekatutako une bereziak ohikoak izanik, ezin beste modu batera izan.

Ziurrenik lehen lerro hauek irakurtzerakoan zu zeu ere itsasoan imajinatu zara, azala kresalez beteta, haize freskagarri goxo batek ilea nahasten dizun bitartean. Edo ezagutzeke duzun herrialde horretan abenturak biltzen hasteko beharra biderkatu zaizu eta oporrak iristeko falta diren egunen atzera kontua egin duzu.

Hala, uda heltzerakoan, kaleak biziz eta terrazak jendez betetzen dira, jarduera sozialak ugaritu egiten dira eta, aspaldiko partez, egunek askotarako eman dezaketela sentitzen dugu. Hala ere, errealitate hau ez da guztiontzat berdina izaten eta bat-batean gure burbui-laren barruan automatikoki eraikitako uda idealaren ideia hau, oso gordin senti

dezake besteren batek, hutsune erraldoi baten legez. Eta hainbat dira hutsune horretan kabitzen direnak, baliabide ekonomikoen falta eta sare sozial sendo baten gabezia, hala nola.

Nahitaezko bakardadea gero eta errealitate hedatuagoa da, eta ez da soilik adineko pertsonengan ematen. Egocera zaugarrian dauden pertsona askok —diru-sarrera mugatuak dituztenek, lan-egoera ezegonkorra dutenek, osasun arazoak dituztenek, etxebizitza arazoak bizi dituztenek edo harreman-sare ahula dutenek— zailtasun handiak izaten dituzte beste pertsona batzuekin loturak eraiki eta eguneroko bizitzako une esanguratsuak partekatuzko. Udako hila-beteetan, desberdintasun horiek are nabarmenagoak bihurtzen dira eta hori nahikoa ez balitz, elkargune bat eskaintzen dieten gizarte zerbitzu batzuk murriztu edo itxi egiten dira, errutinak eten egiten dira eta ohiko harremanak urritu.

Bakardadea ez da soilik bakarrik egoitea; norbere burua besteengandik urrun sentitzea ere bada, entzuna edo kontuan

hartua ez izatea. Eta sentimendu horrek eragin sakona du pertsonen ongizate emozionalean, autoestimuan eta osasun mentalean. Askotan ikusezina den arren, dakartzan ondorioak oso errealak dira.

Garrantzitsua deritzot gogora ekartzea egoera hau ez dela soilik norbanakoen arazoa, gizarte osoari dagokion erronka kolektiboa baizik. Komunitate gisa, badugu arduraren harremanak sustatzeko, espazio ireki eta inklusiboak sortzeko eta inor atzean geratzen ez dela bermatzeko. Uda bezalako garaietan, are beharrezkoagoa da begirada aktiboa izatea: ingurura begiratzea, entzutea eta gertutasun keinu txikiak eskaintzea.

Batuz Gizarte Fundazioetik, eguneroko lanean, pertsonen arteko loturak indartzen, konfiantza espazioak sortzen eta komunitatea eraikitzen saiatzen gara, uste baitugu harremanak direla bakardadearen aurkako babes nagusietako bat. Eta horregatik, topaguneak, ekimen parte-hartzaileak eta elkartasunezko sareak sustatzen saiatzen gara. Azken batean, komunitate inklusiboagoak eta zaintzaileagoak eraikitzea da erronka. ●

ITURRIGANE, 2 EGUNERO  
635584941 8:00-22:00

Arbolantxa, 4  
Tel.: 944 520 825  
48170 ZAMUDIO

Ogitaratekoak  
Anoak  
640 26 84 15  
94 455 42 15  
Garaioltza, 74  
Lezama



1 Aprikanoko Santiago eliza



2 Aprikanoko zubia



3 San Kiriko eta Santa Julita eliza

IÑAKI OLABARRIETA  
JOSE ANGEL MENTXAKA

## MENDITIK PATXADAZ

# San Kiriko

Badaude santuen izen batzuk arrakastatsuak izan direnak, arruntak bilakatu direnak: Pedro, Juan, Santiago, Kristobal... Gure inguruan ere badira hainbat eliza edo ermita izen horiekin. Beste izen batzuk, ordea, ez dute arrakasta bera izan: Kiriko, Formerio, Kiteria, Kolunba... Baina egon badaude, eta horien atzetik ibiliko gara hurrengo ataletan, bide batez, leku ederrak bisitatuz. Arabako San Kirikotik hasiko gara.

**A**rabako Kuartangora itzuli gara oraingoan, eta bailara amaitzeaz dagoela Aprikano herritxoan utzi dugu autoa. Etxe dotoreaz gain, Santiago elizako leiho erromanikoa ikusi dugu, inguru guztian erromanikoa oso presente dago eta. Trenbidea gurutzatu, kontuz, eta ezkerretara eginez, laster harrizko zubi ederraren gainetik pasatu gara eta berriz egin dugu ezkerretara. Merez du Baia errekarera hurbiltzea eta zubiaren sei begiak azpitik ikustea. Hantxe bertan iturri eder bat dago. Apur bat aurrerago adi, aurrera eta gora doan bidexka hartu behar da, eskuinetik doana laster amaitzen da eta ez dago jarraitzerik. Beraz, aurrera eta gorantz egin dugu basotik, nahiko aldapa gogorretik. Bidegurutze batera helduta eskuineko pista hartu behar da, beherantz doan baso ederra zeharkatuz. Harkaitz berezi batzuen ondotik igaro, eta laster zuzen jarraituz, Uribarri-Kuartango herritxora heldu gara.

Oso txikia izan arren, etxe ederrak, armarrria duen jauregi ikusgarria eta gure gaurko helmuga aurkituko ditugu: XII. mendeko eliza, San Kiriko eta Santa Julita. Bailara honetan beste asko bezala, kanpandorrea, edo kanpai horma hobeto esanda, elizatik bereizita dago, bere bi kanpaiekin. Eliza arte erromaniko ederrez dago apainduta: leihoa, portikoa eta teilatu azpiko harrizko iruditxoak. Aipatzeko da portikoko kapitela bat, pertsona buru bat irudikatzen duela iletik belarrietara bi suge dituenak eta ahotik beste bi ateratzen zaizkiolarik. Barruan Erdi Aroko bataiarri dotorea ei dago, baina ezin izan dugu ikusi.

Uribarri utzi eta Zuhatzu-Kuartangora doan errepedetik behera joan gara, baina bide erdian eskuinerantz doan pista hartu dugu, gari eta beste zereal artean doana. Ibilbidea egin dugun garaian gari soloen kolorea ikusgarria da eguzkipean. Aprikanora itzuli gara arazo barik, sei

kilometro eskaseko ibilbidean. Behin hemen egonda, merezi du autoa hartu eta ondoan dagoen Zuhatzu-Kuartangora joatea, bertako garbitoki ederra ikustera. Ondoren, gorago dagoen San Pedro elizarraino joan gara. Nola ez, kanpandorrea kanpoan du, nahiz eta hemen kanpaiak falta, baita leiho eta portiko erromaniko dotoreak ere, baina ez da erreza izan hauek ikustea, bata oso goian dagoelako eta bestea burdinazko ate batek ez duelako hurbiltzen uzten.

Ezin amaitu San Kiriko edo Quiricori buruz ohar batzuk egin barik. Gure inguruan izena ez da batere ezaguna, Jon Maiaren eta Karidadeko Bentako abestiaz gain. Eliza katolikoarentzat erromatar martiriak ziren Santa Julita eta San Kiriko, ama-semeak. Araban ermita gehiago egon ei dira izen horrekin, gaur egun desagertuak. Nafarroan beste ermita bat dago eta Zuberoan pastorala egin zitzaion. ●



San Kirikoko kanpai-horma



San Kirikoko leihoa




4 Zuhatzu-Kuartangoko garbitokia

## Ibilbidea

Distantzia: 5,5 km

Desnibel positiboa: 164 m

Eskuratu  
hemen  
ibilbidearen  
track-a



**AmArz**  
ileapaindegia

Asteartea-ostiralea:  
9:00-19:00  
Laburubata:  
8:00-13:30

Urbe plaza, 1 behea  
Zamudio  
944 520 419





WIKIMEDIA / DIMITAR NAYDENOV

**ESTITXU PÉREZ CASTRO**

📧 txiribita\_mundi

## HERBARIOA

# Urkia

*Betula sp.* Hosto erorkorreko zuhaitza da, betulazeoen familiakoa, haltza eta hurritza bezala, eta Europa iparraldean eta Asia iparraldean dauka jatorria. Ia 70 urki espezie daude, baina bi bakarrik erabiltzen dira fitoterapian: *betula pubescens* (edo betula alba) eta *betula verrucosa* (betula pendularen sinonimoa). Iberiar penintsulan daude bi espezieak.

### IDENTIFIKAZIOA

La *Betula alba* edo *Betula pubescens* hogeit metroko altuerara iritsi daiteke. Bere azal zuria tiretan askatzen da. Bere adaxka gazteak oso meheak dira eta feltro itxura ematen dioten ile oso laburrez estalita daude. Denak Glabrata barietatea izan ezik, ez baitu ilerik adaxketan. *Betula pendularekin* bereiz dezakegu, honek adaxka gaztetan ile motzik ez duelako, baina garatxo bezalako batzuk ditu (guruin erretxinatsuk dira).

### NOIZ BATU

Udaberriaren amaieran eta udaren hasieran biltzen dira hostoak, ekaina inguruan. Batez ere hostoak erabiltzen dira, eta, neurri txikiagoan, azala.

### SUKALDEA

Bere hosto samur eta gazteak jangarriak dira. Bere izerdia edari bikaina da organismoa detoxifikatzeko. Udaberriaren

hasieran biltzen da, azalean ebaki bat eginez. Izerdiaren bidez urki-xarabea egin daiteke, eta izerdia murriztuz loritzen da. Iparraldeko Europako herrialde batzuetan, izerdia hartitzen dute, eta ardo edo garagardo moduko bat egiten dute harekin.

### EZAUGARRI MEDIZINALAK

Fitoterapian urkiaren hostoak erabiltzen dira. Urkia diuretiko bikaina da, eta hori interesgarria da hanketan edema murrizteko, likidoak eta zelulitisa atxikitzeko (konbinatu zaldi-buztanarekin) gernu infekzioak tratatzeko, hala nola, zistitisa eta hareatxoaren prebentzioa eta giltzurrun kalkuluak. Lokomoziorako ere lagungarria da, bereziki azido urikoa ezabatzen laguntzeko, eta hori oso interesgarria da hezuera kasuetan, erreumatismoetan...

Organismoa arazteko, argaltzeko eta obesitateko dietetan laguntzeko ere erabili daiteke. Erabili beste landare araz-


tegi batzuekin batera, kasuaren arabera, adibidez, lehoi hortza, kardu mariarra, alkatxofa, etab.

**Larruazaleko arazteak:** dermatitisa, psoriasis, ekzema, aknea... Ortiga berdearekin, bardana, fumaria, pentsamendu edo bioletarekin batera...

**Kanpoko erabilera:** ahoko aftak, gingivitisa (infusioarekin irakuzketak egin). Llagak eta ultzerak (infusioarekin garbitu).

**Infusioa:** 2-3 g hosto lehor 150 ml uretan, hamar minutuz pausatzen utzi eta hartu. Egunean 2-3 katilu hartu, hobe da otordu artean hartzea.

**Garrantzitsua:** urkia diuretiko ona da eta, hain indartsua denez, gorputzak prozesuan mineralak galtzen ditu. Diuretiko gisa erabili nahi badugu, komeniga-



## Landareak batzeko aholkuak

**Orokorrean:** hartu ondo ezagutzen duzuna; hartu neurritz eta soilik lekuan asko badaude; ez eraman dena, utzi beti zerbait; hartu bakarrik erabiliko duzun landarearen zatia; ez atera sustraitik, moztu ondo hazten jarrai daitezen; ez moztu loreen %20 baino gehiago, zuhaitzak edo zuhaixkak badira; hartu bakarrik erabiliko duzuna, geroago itzuli ahal zara, edo beste leku batzuetara joan; ez jaso gune babestuetan edo parke naturalatan.

**Non:** larreetan eta autorik pasatzen ez den bide-ertzetan; goldatu gabeko basoetan; toxikorik erabiltzen ez den ortuetan eta lorategietan; INOIZ EZ areketan, fumigatutako landetan eta ibaiertz kutsatuetan.

**Noiz:** goizean, ihintza sikatu ondoren; hartu hostoak erabiliko ditugun egunean bertan; hartu loreak goizean eta sustraiak arratsaldean; landareak gorde edo sikatzeko, hobe da ilbehera denean jasotzea.

**Materialak:** eskularruak, artaziak, paperezko oihalezko poltsa, zumezko saskiak...

ria da zaldi-buztanarekin konbinatzea, diuretiko izateaz gain, birmineralizatzailea ere badelako.

### ERABILERA KOSMETIKOAK

Garbitzaile ona da, larruazalaren or-baintzailea eta antiseptikoa.

Egostea: 2 eskukada urki orri edo 30-50 g azal litro bat uretan. Irakiten utzi behar da hamar minutuz, eta, ondoren, atsedean hartzen utzi behar da minutu batzuetan.

Erabilerak: Ilea erortzea saihesten du, toniko kapilar gisa erabili. Zauriak garbitzeko, dermatitisaren kasuan, eta abar. Zelulitisaren kasuan, gorputzeko bainuetan.

### BITXIKERIAK

Antzina, barne-azala oso fina eta gardena denez papera edo papiroa bezala erabiltzen zen. Are gehiago... azal horri "librum" esaten zioten erromatarrek, gaur egungo liburuei izena emanez. Zelta eta eskandinaviar mitologian, jaiotzaren,

berpizkudearen, garbiketaren eta berrikuntzaren sinboloa da. Eraldaketaren sinboloa denez, zuhaitzei bizia itzultzen die, Ama Lurraren emankortasunaren zati gisa. Horrek azalpen bitxia du, urkiak suteak ugalketarako eta hedapenerako erabiltzen dituela baitirudi, heriotzaren ondoren bizia emanez. Urkia oso zuhaitz sakratu garrantzitsua da Samhainen erritualetan, garbiketa prozesuetan eta beste mundurako sarrera gisa.

### KONTRAINDIKAZIOAK

Urki-polenarekiko alergia edo sentikortasuna duten pertsonak ez dute hartu behar. Haurdunaldian ez da hartu behar, ezta edoskitzaroan eta 12 urtetik beherako haurretan ere. Diuretiko handia denez, giltzurrunetako edo bihotzeko gaixotasun larriak dituzten pertsonak ez dute kontsumitu behar. Medikazio diuretiko hartzen baduzu edo tentsioa edo bihotza zaintzeko, hartu aurretik kontsultatu zure medikuarekin. ●

**sarraila-denda  
Txorierri**  
ADITUAK SARRAILAGINTZAN ETA SEGURITASUNEAN

Alain Pomposo Zarate info@cerrajeriatxorierri.com  
605 100 800 www.cerrajeriatxorierri.com

**PATXI**  
OSTALARITZARAKO ZERBITZU INTEGRALA

**40 URTE ZUGANDIK GERTU**

www.patxikoop.eus

Facebook, Twitter, Instagram, YouTube icons

Neiber Poligonoa / Ebezarre 4, 48170 / Zamudio / 944 522 587 / info@patxikoop.eus

**ZAMUDIO  
Loteria Nazionala**

Leizaola L. plaza, 7  
Tel.: 94 452 09 59  
loterias.zamudio@gmail.com



## SUKALDARITZA

# Boletus eta zigalen risottoa

## Ignacio Quintana San Migelenen errezeta



### OSAGAIK:

#### Risottoaren oinarria

- 300 g arroz biribila (bonba, carnaroli edo italiarra)
- Tipula erdi bat (40 g inguru), xehatua, oso fina
- Litro 1 salda, hegaztiena edo zigalena
- Baso bat ardo zuri lehorrak
- 80 g gurin
- 50 g parmesano (edo ale padanoa)
- Gatza eta piperbeltz beltza

#### Itsaskiak eta onddoak

- 400 g boletus (freskoak edo birhidratatuak)
- 24 otarrainxka 12 zigala
- 30 g boilur eta haren zukuak

#### Aukerakoak

- Orburu frijituak
- Etxeko zigala salda: 40 g kanililak, 40 g atotxeak, baratxuri 1,40 g azafrai eta 150 ml ardo

**E**rrezeta honek bere izaera elkar indar-tzen duten hiru ardatzen gainean eraikitzen du: boletusen zapore sakona, zigalen itsas iodoa eta gurinaren eta parmesanoaren koipe aberastasuna. Boilurrak zubi gisa jokatzen du lehorraren eta itsasoaren arteko usain usaintsua, eta ardo zuriak halako intentsitatea orekatzeko bidezko azidotasuna ematen du. Ñabardura horiek guztiak xurgatzen eta birbanatzen dituen mihise neutroa da arroza — ponpa edo carnaroli motakoa —.

### ELABORAZIOA

1. Oinarrizko sofritua. Berotu gurinaren erdia su ertainean burbuilatzan hasi arte. Gehitu tipula xehatua eta erregosi su baxuan bigundu arte (8-10 minutu

inguru). Ez du kolorerik hartu behar.  
2. Arrozaren txigorketa. Gehitu arroza eta erregosi, etengabe mugituz alearen ertzak gardenak izan arte. Urrats horrek — txigortuak — kanpoko almidoia zigilatzen du eta risottoari gorputza ematen dio amaieran.  
3. Ardoa. Bota ardo zuriaren edalontzia, eta eragin energiaz, alkohola erabat lurrundu arte. Aroma aldatu egiten da: azidotik gozora eta afrutatura.  
4. Boilurra. Gehitu boilurra eta bere zuku guztia sardexkarekin. Eragin integratzeko. Beroak askatzen du ale bakoitza lurrinduko duten konposatu lurrunkorrak.  
5. Salda. Katilu bateko txandetan salda beroa gehituz joan, etengabe mugituz eta xurgatu arte itxaron, hurrengo gehitu

aurretik. Prozesu honek 18–20 minutu irauten du. Ez utzi inoiz mugitzeari.  
6. Gatza. Arroza bere puntutik bi minutura dagoenean, gatza gehitu. Lehena-go egiteak aldatu egiten du almidoien xurgatzea.  
7. Mantekatoa. Kendu sutatik. Gehitu parmesano birrindua eta gainerako gurina (hotza, dadotan). Eragin energiaz, mugimendu zirkularretan 2-3 minutuz. Utzi pausatzen minutu 1 estalita.  
8. Boletusak eta itsaskia. Salteatu onddoak oliba-oliotan su bizian (buelta eta buelta, pilatu barik) eta egosi otarrainxkak edo zigalak berezita.  
9. Platereratzea. Zabaldurrisottoa plater sakonean, jarri onddoak eta itsaskia gainean. Zerbitzatu albaka hosto freskoarekin eta parmesano apur batekin.




Zuk ere errezetak gurekin partekatu nahi baduzu, idatzi [aikor@aikor.eus](mailto:aikor@aikor.eus) helbide elektronikora.

## DENBORA-PASAĀ

### GURUTZEGRAMA

Egunean zauze Txorierriko albisteetaz? Bete gurutzegrama eta ezkutuko hitza aurkitu.



1. Zelan deitzen da *Audiogile Berriak* deialdiaren irabazle sondikoztarra?
2. Zein herrik irabazi du Kirolur erronkako lehen fasea?
3. Nor gailendu da Euskal Herriko 5. Elektrotzaranga Lehiaketan?
4. Zein fundaziorekin sinatu du akordioa Sondikako Udalak?
5. Noren bideoek izan dute arrakasta handia Tik Tok plataforman?
6. Zein erakundek bultzatu du 2025ean 26 enpresa eta 32 enplegu sortzea?
7. Zein jai geratu dira ilunduta gertakari batzuenatik?
8. Nor ez da izango CD Derioko entrenatzailea 2026-2027 denboraldian?

### SUDOKU ERRAZA

	6							
2	4	3					1	9
		1	5	2				
	8		7		9	2		1
4	3	7				8	9	5
	1	2			8	4	6	
	2	9		3				8
1	5				6	9		
		4	9	8		6	5	

### SUDOKU ZAILA

		1	7	6		9		
8	2							3
	4	9			1			
2			9	3		7		
		6		1	7		3	
				2				
					5			8
			6					
	7					5		1

## UZTAILEKO AGENDA

### 5, domeka

07:30 **Erlo eta Xoxotera mendi irteera**  
DERIO Untza Mendi Taldea. Nagusien  
etxean

**Busti Zaitetz** DERIO

### 12, domeka

07:30 **Untzilaitzera mendi irteera**  
DERIO Untza Mendi Taldea. Nagusien  
etxean

### 16, eguena

11:15 **Larrea eta Aginaga Sagardo-  
tegira (Usurbil) irteera** LARRABETZU  
Larrabetzuko adinekoen elkarte

### 18, zapatua

22:00 **Aire zabaleko zinema saioa:**  
**Minecraft** DERIO

### 19, domeka

07:30 **Aratzera mendi irteera** DERIO  
Untza Mendi Taldea. Nagusien etxean

### 22, eguaztena

**Madalenatara autobusa** ZAMUDIO

**Gazte Derio - Festa Tropikala** DERIO

### 24, barikua

**Sondikako Nazioarteko**  
**Folklore Jaialdia** SONDIKA

## LEZAMA KO GAZTE EGUNA

### 4, zapatua

12:00 **Graffiti tailer girotua: Jamaike-  
tako selektoreak**

14:00 **Trikipoteoa**

15:00 **Bazkaria**

17:30 **Zelai erre txapelketa**

20:00 **Elektropoteoa**

22:30 **Kontzertuak: Steady Rockets,  
Lukiek eta Dj Zatzaz**



Whatsapp kanala,  
albisteak jasotzeko

Sartu [labur.eus/aikorkanala](https://labur.eus/aikorkanala) helbidean

Sakatu **Jarraitu**, albisteak jasotzeko

Sakatu kanpaintxoa 🛎️, eduki berria  
dagoenean jakinarazpena jasotzeko



Haz Gaitezen

Gehiagora heltzeko.  
Egin zaitez AIKORLAGUN

[aikor.eus/babestu](https://aikor.eus/babestu)

**aikor.**

# Kress®

**Oraindik bedarra mozten?**

Pausua emoteko ordua heldu da.



**Utzi mozten, hasi disfrutatzen.**

Etorkizuna hemen da. Zure belardia beti txukun KRESS roboten RTK<sup>n</sup> eta Vision IA teknologiari esker.

**EYE** easy yard exploration  
**PILOT**

**Zure lorategian antenarik behar ez duen satelitez gidatutako robota.**

[www.kress.com/es-es](http://www.kress.com/es-es)

**HOBBY-LUR**

946764867 - 635850253 | [www.hobbylur.com](http://www.hobbylur.com)